

## BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresa itsasotik bildutako plastikoa eraldatuz arropa ekoiztean oinarritzen da.

Arropa izen orokorra izanik, ekoiztuko eta salduko duguna galtzak, jertseak eta kamisetak direla nabarmendu beharra daukagu. Gure enpresak ingurumeneko arazoa konponduko luke, plastikoa berrerabiliz. Horrez gain, Tailandian kokatzen denez eta bertako biztanleak lan egiten dutenez, arazo ekonomikoa ere konponduko luke.

Itsasoko arropa lortzeko “OCEAN CLEAN UP” izeneko tresna bat erabiltzen duen talde batekin bat egingo dugu. Hau, itsasoko arropa biltzeko erabiltzen den tresna bat da, eta lan honetaz arduratzen den talde batekin elkarlana eginez, gure helburua betetzeko lehengaiak lortuko ditugu.

Lehen esan bezala, gure enpresa Tailandian kokatzen da, bertan ekoiztuko dugu arropa, bertako biztanleak langile izanik. Honen harira, enpresak hainbat behar asetzen ditu, edo hori du xede, esaterako, Tailandiako biztanleen egoera ekonomikoa hobetzea, lan egiten dutenaren arabera kuotak ordaintzearen bidez. Horrez gain, itsasoko plastikoa bilduz, eta horren bidez arropa produzituz, ingurumena zaindu edo garbitu eta berrerabiltzen dugu.

Bezeroen harira, hauen baliabideen arabera, lehenengo mailako edo bigarren mailako beharrak asetuko lituzke gure enpresak, hau da, banakoaren egoera ekonomikoaren arabera beharrezkoa edo kapritxoa izango litzateke.

Honek guztiak gure lehiakideengandik bereizten gaituela uste dugu, beste enpresek ez bezala arazo ekonomikoa eta ingurumen-arazoak konpontzen baititugu, lana eskainiz eta plastikoa bilduz.

Lehiakideekin jarraituz, konpetentzia eduki genezakeen enpresak arropa saltzeaz arduratzen direnak dira orokorrean, esaterako: Ecoalf, Parley, H&M...